

# Bitzaren lurrikaretan aritu da Nerea Loiola 'Epizentroa' narrazio bilduman

Aritz Mutilozabal 2021-06-07 17:30



Nerea Loiola idazlea, gaurko aurkezpen ekitaldian (Erein argialetxea)

**Helduei zuzendutako lehen liburua du, eta bertan zazpi ipuin bildu ditu. Guztietan emakumezkoak dira protagonistak, eta giza harremanek protagonismo handia dute. Ostiralean Sanz Enea kultur etxean aurkeztuko du liburua.**

"Hipozentroaren proiektio bertikala dagoen lurrazaleko gunea da; hau da, lurrikara edo mugimendu sismiko bat indar gehienez sumatzen den Lurrazaleko gunea". Wikipediatik hartutako definizioa irakurri du Nerea Loiolak epizentroa zer den adierazteko eta, bide batez, helduentzako bere lehen literatur lanari bide emateko, gaur goizeko aurkezpenean. *Epizentroa* zazpi ipuinez osaturiko narrazio bilduma da, non istorio bakoitzeko emakume protagonisten bizitzetako lurrikarek –pozarriek zein mingarriek– bere pisua izango duten. Bere aurreko bi lanak bezala, erin argialetxearen babesean eman du argitara.

"Bizitzan zehar lurrikara ugari izaten dugu gure baitan, egunerokoan gertatzen dira batzuk, une konkretu batzuetan beste batzuk, esaterako, haur bat izaterakoan, harreman bat amaitzerakoan, lan aldaketak; esan dezagun sistemak ezartzen digun ustezko zoriontasun horren eraketan ematen direnak", azaldu du egileak. Lurrikara horiek non, noiz eta nola gertatu diren, eta non, noiz eta nola nabaritzen dugun "guk" jasotzen ahalegin da.

Ipuinak autonomoak dira, eta bakoitzari bere espazioa eskaini dio idazketa prozesuan, libre utziz. Istoriako pixkanaka ateratzen joan direla onartu du idazleak, "nire lurrikara txikietatik eta pertsonaien lurrikaretatik". Narrazioak independenteak izan arren, komunak diren hainbat elementu dituzte: alde batetik, protagonista guztiak emakumezkoak dira, adin eta ezaugarri desberdinetakoak, eta bestalde, gai batzuk maiz azaltzen dira narrazio desberdinetan: maitasuna, desioa, sexua, nahiak/ardurak/ezinak. "Baina, bereziki, esango nuke giza harremanetan ezarritako ardatza eta erabakien inguruko aferak direla liburuari osotasuna ematen diotenak".


Halaber, arreta handia jarri du harremanetan, xehetasunetan, keinuetan, ekintza txikietan, harremanen simetria eta asimetrietan: "Gure buruan errotzen doazen erabakien eta erabaki horiek benetan gauzatzearen artean dagoen amildegian kokatzen dira sarri ipuin hauetako pertsonaiak". Izan ere, Loiolak berak dioenez, "alde batetik dagoelako erabakiak hartzeko ataka konplikatu hori; eta, ondoren, askotan zailagoa izaten dena, erabakitako hori benetan gauzatzearena".

## Aurkezpena, Sanz Enean


Gaurko aurkezpen ekitaldiaren ondotik, *Epizentroa* aurkezteko beste hitzordu batzuk lotuta ditu dagoeneko Nerea Loiolak. Ostirala honetan, ekainaren 11n, Sanz Enea kultur etxeko erakusketa gelan izango da narrazio bildumaren nondik norakoak herritarren aurrean partekatzen, Inazio Mujika editorea lagun duela. Saioa 18:30ean hasiko da.

KULTURA

Erantzun



## Ikusienak




**100dik jaitsi da Zarauzko intzidentzia tasa**  
KORONABIRUSAREN ERAGINA GUREAN  
Anartz Izagirre  
eka 16, 13:06 **GIZARTEA**



**Udaltzainek bi pertsona atxilotu dituztela jakinarazi du udalak**  
Onintza Lete Arrieta  
eka 15, 12:46 **GIZARTEA**



**Espaloiairen zoladura aldatzeko lanei ekin diete Erribera Zahar kalean**  
Zarauzko Hitza  
eka 16, 10:30  
**AZPIEGITURAK**



**Biodibertsitatea lantzeko Aranzadik abian jarri duen ekimen batean parte hartzen ari da Orokieta Herri Eskola**  
Andoni Elduaien  
eka 16, 09:30  
**INGURUMENA**



**"Hilabeteetako lanaren ondoren", itsas trabesia antolatuta da, moldatuta**  
Onintza Lete Arrieta  
eka 16, 09:01 **KIROLA**



**Laster sartuko da indarrean udal baratzetako araudi berria**  
Amaia Urbieta Arruti  
eka 16, 16:06 **GIZARTEA**

## UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

Araba kalea 25, 20800 ZARAUZ (Gipuzkoa)

Tel: 943 89 00 17 | zarautz@ukt.eus

Codesyntaxek garatua



HONI BURUZ    LEGE OHARRA    PUBLIZITATEA    ARAUAK    HARREMANETARAKO    RSS



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA	AIKOR	ANBOTO	ATARIA	BALEIKE	AIURRI	ERRAN	EUSKALERRIA IRRATIA	GOIENA	GUAIXE	HIRUKA	KARKARA
MAXIXATZEN	PLAENTXIA	ALEA	28 KANALA	ANTXETA	BARREN	ERLO TELEBISTA	GEURIA	GOIERRI TELEBISTA	KRONIKA	MAILOPE	
		NOAUA	DEUSTUALDEA PREST	TXINTXARRI	URIOLA	UZTARRIA	AMEZTI	OIZMENDI TELEBISTA			

Gurean    Plazanbazan    Ttap

Tokikom publizitatea